

2

0

DK

Jaialdia
LITERAKTUM

2

1



Jaialdia LITERAKTUM

2020ko edizioa azken orduan bertan behera geratu eta gero, **Literaktum** indartuta itzuli zen Donostiako kultur agendara. Berritasun aipagarriena **Literaktum Topaketak** izan ziren. Ekinbide horri esker, literatur panoramako autore nabarmenenek Donostia bisitatu ahal izango dute urtean zehar, jendearekin partekatze beren ibilbideak eta proiektuak.

Bi hitzordu desberdinek, bat **Leonardo Padurarekin**, 2015eko Letren Asturiasko Printzesa sariduna bera, eta bestea **Najat El Hachmirekin**, zeinak Nadal saria irabazi baitzuen 2021ean, hasiera eman zioten maiatzean jaialdiaren **apustu** berriari.

Literaktum, Donostiako literatur jaialdia, **azaroaren 8tik 21era egin zen**, hiriko zenbait lekutan, eta berriz ere jende ugari etorri zen antolatutako ekitaldietara. Guztira **3.500 herritarrek hartu zuten parte, era batera edo bestera, programazioan**.

“Literatura eta oroimena” izan zen ardatz nagusia. Gai horri buruz jardun zuten etorritako idazle gehienek, zera azpimarratu baitzuten, zeinen garrantzitsua den oroimena beren literatur sorkuntzaren prozesuan. Literaktumen izan ziren,

besteak beste, **Luis Landero, Leila Slimani, Borja Ortíz de Gondra, David Grossman, Marta Barone, Isabela Figueiredo, Jordi Amat** edo **Eduarne Portela**, denak ere oroimenaz zeresana franko duten sortzaileak

Topaketak Donostiako kultur etxeetan izan ziren, San Jeronimo kaleko aretoan, Koldo Mitxelena Kulturunean, Tabakalera eta hiriko beste zenbait tokitan. Zenbait ekitalditan, aretoak bete egin ziren; esate baterako, **Leila Slimani, Luis Landero, Javier Cercas** edo **Manuel Jabois-enetan. Nolanahi ere, David Grossman** israeldarrak bildu zuten jende gehien.

Nabarmentzekoa, halaber, **Anjel Lertxundi** idazlearen parte hartzea, jaialdiaren lehen egunean, zeinean Martin Ugalde gogoratu baitzuen, euskal kulturako idazle garrantzitsua, haren jaiotzaren mendeurrenean. Aipagarriak, baita ere, **Kirmen Uribe**k New Yorketik bidalitako hitzak, bere azken lanari buruz, edo **Eider Rodriguezek Harkaitz Canorekin** izandako solasaldia, bere lehen eleberria zela eta.

LITERAKTUM



Literaktum_Aiete Piraten istorio bat © Iñaki Rubio

Ekitaldi horietako asko grabatu egin ziren, eta nahi zuenak berriro ikusi eta entzun ahal izan zituen ikusgai jarri ziren topaketen podcastak, hala Donostia Kultura Irratiaren webgunean (<https://irratia.donostiakultura.eus/es/>) nola podcasten plataforma nagusietan.

Idazleekin izandako elkarrizketez gainera, beste jarduera batzuk ere izan ziren **Literaktumen**, literatura beste hizkuntza batzuekin solasean jarri zutenak: eztabaidak, ikastaroak, musika-irakurketak, irrati-tailerra, antzezlan bat, instalazio bat eta baita bost erakusketa ere.

Literaktum Txikia programa ere, literaturzale gazteenei zuzendua, arrakastatsu gertatu zen. Kontu-kontariak, antzerkia, Haurren Egun Unibertsalaren jaia, lantegiak eta "**Marrastu zure animalia fantastikoa**" ilustrazio-lehiaketa: horiek guztiek eta beste batzuek eratu zuten programa. Aipagarria, halaber, lehiaketa horretan parte hartu zutenen kopurua, 200 ilustraziotik ora bildu baitziren.



Literaktum Txikia_Aiete Kultur Etxea © Iñaki Rubio

